2019ko

ENTZUTEAREN LABURPEN TXOSTENA

D2030

AURKIBIDEA

emun
Euskara eta
berrikuntza soziala

txatxilipurdi

01 4. orria
SARRERA

02 5. orria
D2030 ZER DA?

03 6. orria
ENFOKEA
· Entzute komunitarioa
· Prozesua
· Entzundako herritarren unibertsoa

04 8. orria
JASOTAKO ETA AZTERTUTAKO INFORMAZIOA 6 ARDATZEN ARABERA
· Aukera berdintasuna
· Lanaren etorkizuna
· Hezkuntza
· Iraunkortasuna
· Kultura
· Gobernantza kolaboratiboa

01 SARRERA

Debagoienean hainbat herritarrek bailarari eta egunerokoari buruz dituzten iritziak eta pertzepzioak jaso ditugu laburpen honetan. Lana D2030 Garapen Iraunkorrerako Sareak bideratu du.

Iritziak eta pertzepzioak biltzeko 125 pertsonekin egon gara, 2018 bukaera eta 2019. urte osoan zehar. Horretaz gain, 10 talde eztabaida eta 5 interpretazio kolektibo egin ditugu.

Azpimarratu beharra dago txostenean jasotakoak elkartu garen pertsona horien PERTZEPZIOAK eta IRITZIAK direla, pertsonek egoeraz egiten duten momentuko irakurketa. Eta, nola ez, eskertzen dugu pertsona horiek parte hartzeko eskaini diguten denbora eta gogoa.

Dokumentu honetan bilduta-koaren sintesia jaso dugu. Informazio zehatza eta osatua izateko, entzute txostenera jo beharra dago.

Azkenik, D2030 Garapen Iraunkorrerako Sareak ez ditu bere egiten, ezinbestean, entzute prozesuan esandakoak. Horiek biltzeko eta analizatzeko ardura, ordea, bai.



02
D2030 ZER DA?

Erakunde, eragile eta herritar desberdinez osatutako lankidetza sare irekia da **Debagoiena 2030 Garapen Iraunkorrerako Sarea.** Debagoienak dituen askotariko erronka komunitarioei elkarrekin erantzuna emateko helburuarekin sortu da.

NORTZUK GARA?

Debagoieneko askotariko agentez osatutako sarea da (administrazio publikoa, kooperatibak, unibertsitateak, e.a..).

ZERTARAKO?

Debagoienak dituen erronkei erantzuna eman eta eskualdearen giza garapen iraunkorra sustatzeko.

NOLA?

Berrikuntza Plataforma Ireki moduan jardunda, hau da, askotariko eragile, metodologia eta ekimenak egitasmo bakarrean uztartuz eta saretuz.

NON?

Debagoienean: Antzuola, Elgeta, Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Aramaio.

Honakoak dira D2030en bisio eta misioa:

MISIOA

XXI. mendeko erronka globalei erantzun komunitario propio bat emango dien eraldaketa mugimendu bat sustatzea.

BISIOA

Lurraldearen garapen komunitarioan sakondu, 2.050 urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena eraikitzeko.

03
ENFOKEA

2019AN ZEHAR, BERRIKUNTZA PLATAFORMA ERAIKI ETA AURRERA ERAMATEKO, AGIRRE LEHENDAKARI CENTERREK (ALC) PROPOSATUTAKO METODOLOGIAN OINARRITU GARA. LEHEN URRATSA SAKONEKO ENTZUTE KOMUNITARIOAK OSATZEN DU.

Hauek izan dira guztira elkarrizketatuen aniztasun datuak:

GENEROA



JATORRIA



3.1. Entzute komunitarioa

Etnografiak eguneroko ekintza praktikoei erreparatzen die. Bertaratu eta behatu egiten du, balioak, nahiak eta aspirazioak identifikatzeko. Ikerketa edo sakoneko entzute komunitarioaren prozesua "deep listening" metodologian oinarritu da.

"Entzuten" dugu ondorengoak identifikatzeko: indarguneak, beldurrak, erronkak eta lehentasunak; eta horien guztien uztarketari **narratiba** deitzen diogu.

Gai asko irten dira entzute prozesuan. Horiek sei multzo nagusiren arabera sailkatu ditugu: Aukera berdintasuna, lanaren etorkizuna, iraunkortasuna, hezkuntza, kultura eta gobernantza kolaboratiboa.

3.2. Prozesua

Ondoko dinamikak erabili ditugu entzute prozesuan:

- **Egituratu gabeko elkarrizketa kualitatiboak:** narratibak identifikatzeko banakako elkarrizketak dira. Askotariko pertzepzio edo ikuspuntuak jaso eta zergatietan sakontzeko egiten dira. Elkarrizketa kualitatiboak 2 alditan egin ditugu.
- **Talde eztabaidak:** Narratibak identifikatzeko taldekako elkarrizketak dira.
- **Interpretazio kolektiboak edo zentzu emate kolektibo saioak:** Elkarrizketetatik eta talde eztabaidatatik ateratako ondorioak taldean partekatu, kontrastatu eta horien zergatietan sakontzeko interpretazio taldeak dira.

3.3. Entzundako herritarren unibertsoa

- **Elkarrizketak** (elkarrizketatuak 125)
  - 1. errondan: 123 elkarrizketa
  - 2. errondan: 16 elkarrizketa
- **Talde eztabaidak:** 10 saio
- **Interpretazio kolektiboak:** 5 saio
- **Berariazko entzutea:**
  - Lanaren etorkizunaren inguruko gaian: 16 elkarrizketa
  - Klima aldaketaren inguruko gaian: 7 elkarrizketa

BIZITOKIA



ADINA





04

JASOTAKO ETA AZTERTUTAKO INFORMAZIOA

6 ardatzetan multzokatu dugu jasotako informazioa. Ardatzen hurrenkera, bestalde, gehien aipatutako gaien araberakoa da.

4.1. Aukera berdintasuna
4.2. Lanaren etorkizuna
4.3. Iraunkortasuna
4.4. Hezkuntza
4.5. Kultura
4.6. Gobernantza kolaboratiboa

2019KO ENTZUTE FASEA - ONDORIO NAGUSIAK

AUKERA BERDINTASUNA

- Bazterkeriak dimentsio zabala eta konplexua du, eta ahalegin kolektiboa eskatzen du.
- Feminismoak gai politikoa eta mugimendu izaten jarraitu behar du.
- Euskara inklusiorako elementu da. Nola egingo dugu?
- Etorkizunaren zama ere bizi dute gazteek.
- Ongizatea amets: batzuk eusteko ahaleginetan, beste batzuk iritsi ezinda.
- Zahartze aktiboan batzuk, beste batzuk abandonu eta bakardade sentimenduaz.
- Etxebizitza arazo sozialen ispilu bihurtzen.
- Homofobia euren gorputzetan bizi duten pertsonak daude eskualdean.

LANAREN ETORKIZUNA

- Sorrerako kooperatibagintzari aitortza, egungoa berrasmatzeko premian.
- Laneratzeko egiturazko oztopoak dituzte etorri berri, emakume eta adinekoek.
- Sektoreen arteko desoreka: enplegu prekarioak sektore eta kolektibo batzuk kolpatzen ditu.
- Enpresa eredu iraunkorrago batera jo beharra.
- Industriaren balizko gainbeherak izua sortzen du, bereziki automozioarenak.
- Tokikotasunaren balioa indartzeko ahaleginak nekazaritzan eta herriko merkataritzan.

KULTURA

- Ez dago eskualde sentimendurik, nahiz eta estrategikotzat jotzen den eskualde eskala.
- Gaur egungo aisialdi ereduak kezka sortzen du, eredua aldatu behar da.
- Osasun emozional eta mentala ez ditugu zaintzen, horrek hainbat ondorio dakartza. Indibidualismoak eragin nabarmena.
- Kultur eskaintza handitu eta ireki behar da, sorkuntza bultzatuz.

HEZKUNTZA

- Hezkuntza modu integralean ulertu beharko genuke. Harremanek eta emozioek lekua izango luketen hezkuntza sistema bat eraiki beharra dago.
- Sareen artean segregazio handia dago.
- Hezkuntza sistemak ezin die arazo guztiei bakarrik erantzun. Ezinbestean, komunitatearen laguntza behar du.

GOBERNANTZA KOLABORATIBOA

- Elkartegintza eta gizarte zibil antolatua apaltze bidean, baina herrien artean aldeak daude.
- Lankideetza gutxi ematen da, eta lankidetza proiektuak aurrera eramateak lanak ematen ditu.
- Administrazioa urruneko erakundetzat hartzen da.

IRAUNKORTASUNA

- Garraio publikoa hobetu eta kontzientziazioa landu beharra dago.
- Gure kontsumo ohiturak neurrigabeak dira, kontsumo eredua aldatu behar da.
- Klima aldaketaren gaian ekintzetara jotzeko erresistentziek daude, erosotasunagatik edo egoera emergentearen ikusgarritasun faltagatik.

4.1. Aukera berdintasuna

Debagoienean denok ez ditugu gure bizi proiektua garatzeko aukera berdinak ezaugarri batzuek baldintza dezaketelako gure ibilbidea: jatorria, generoa, estatus soziala, aniztasun funtzionala, ikasketak, familia ingurunea, e.a.

4.1.1. Bazterkeriak dimentsio zabala eta konplexua du, eta ahalegin kolektiboa eskatzen du

Bazterkeriak, bereziki, migratutako kolektiboa kolpatzen duela jaso dugu. Gainera, komunitate moduan ezer gutxi egiten ari garenaren sentsazioa dago. Erronka horri erantzuteko denok guretik eman beharra azpimarratu da, zakua bete lan du eskualdeak bazterkeriaren gaian.

IDEIA GAKOAK

- Eskualde arrazista delako ustea. Kulturartekotasuna ez da bailararen bereizgarri. Integrazioan aferan pertsona orok inplikatu behar du, denok guretik eman.
  Kolektibo batzuk estimatizatuago: magrebiar, pakistandar eta emakume latindarrak.
- Hedabideak beldurra areagotzen dabiltza diskurtso arrazistek leku izan dezaten.
- Diskurtsoetan asimilaziorantz jotzen dugu.
- Aporofobia nabarmena. Bi jokamolde ezberdin migratuekiko: errefuxiatuei harrera ona; errefuxiatu ekonomikoekin ez gara arduratu ere egiten.
- Migratu gehienek ez daukate harreman sarerik. Etorri berritan blokeo egoera dago.
- Paperak lortzea, lana eta integrazioa dira kezka nagusiak.
- Lana jotzen da integraziorako giltza, 60 hamarkadan hala izan zen. Oraingo etorri berriekin, ordea, ez da berdin gertatzen ari. Ez dugu lanpostu eta leku berdinetan lan egiten.
- Atzerritartasun egoera erregularra mantentzeko lehenengo bost urtetan lana mantentzea oso nekeza zaie. Eta laneratzean, diskriminazio handia dago.

> *La gente es consciente del racismo que se vive, igual no le pone nombre, pero ni siquiera las personas migrantes le ponemos nombre, ese es el tema. Es hora de ponerle nombre a esos malestares, si no vamos a seguir trabajando los prejuicios sin más, sin resolver todo lo que está detrás de eso.*

ARRISKUAK

- Migratu askok ez diote arrazismoari izenik jartzen, baina badaude minak, egonezinak.

ERRONKAK

- Harreran asko dago egiteko. Pertsonen arteko enpatia landu behar da, alde humanoa.
- Hiri antolamendu eta hirigintza politika inklusibo sendoak behar dira.
- Diskurtso inklusiboen premia: aniztasuna aberastasun moduan ikusi.
- Migratuen arteko auto organizazioa oso garrantzitsua da.
- Aniztasunaren gaia agenda politikoan sartu behar da: zurrumurruak ekiditeko, diru laguntzen eta etorri berrien kopuruen datu zehatzak etengabe sozializatu, e.a.
- Instituzio publikoei diru laguntzen gaia erregulatzea eskatzen zaie.

> *Las personas profesionales del ámbito social (Servicios Sociales, Lanbide...) tenemos que transmitir la información como se debe. Hay que explicar a las personas por qué se exigen ciertos requisitos para poder acceder a las ayudas. Las técnicos necesitan también un discurso político y no decir "pues esto es lo que hay", así se generan los estereotipos.*

PROFILA

- ASKOTARIKOA
- MIGRATUAK
- ARLOKO ELKARTEAK
- DEBAGOIENEAN JAIOTAKOAK

LOTURAK

LANAREN ETORKIZUNA (4.2.2. eta 4.2.3.)

4.1.2. Feminismoak gai politikoa eta mugimendu izaten jarraitzeko premia du

Pil-pilean dagoen gaia da feminismoarena. Pertsona helduek bilakaera handia bizi izan dutela diote.

IDEIA GAKOAK

- Feminismoa mugimendu bezala ulertzen dute askok, aniztasuna duen eta bizirik dagoen mugimendua.
- Emakume migratuek laneratzeko zailtasunak dituzte eta lan prekarioetan dihardute.
- Askotan, emakumeari ez zaio eskaintzen lanpostu bat haurrak dituelako; eta beste batzuetan, eskaintzen zaio eta ezetz esaten du. Baina ez da aukera librea; badaki esfortzu handia egin beharko duela, eta gauza asko albo batera utzi beharko dituela.
- Zaintzarako murrizketa gehien emakumeek hartzen dituzte.
- Perfil batzuetako lanetan genero banaketa ematen da, eta honek soldatetan eragina du.
- Generoaren aferarekin lotutako beldurrak ageri dira: gauez bakarrik ibiltzeko, amatasunaren gaineko zalantzak (umeak hezteko, errudun sentimenduak haurtzaindegian haurrak uzteagatik, e.a.).
- Gizonezkoen garaia dela aipatzen da -emakume helduek-. Beraiek aldatu ezean, nekeza dute emakumeek ezer egitea.

> *El feminismo ahora está más posicionado dentro de la agenda. Pero eso tiene su lado contrario, porque el discurso está en la boca de todos, y no necesariamente todas esas personas que están hablando de feminismos ahora se han puesto a cuestionar o a pensar realmente qué es lo que está cuestionando el feminismo.*

ARRISKUAK

- Etorkizunean sortuko diren arrakalak.

> *Etorkizunera begira, ikusi dot dauela kriston erronka oin hasi dala enpresa pribatuak, start up... mundu digitala hasi dala zabaltzen eta datorrela 4. reboluziño industriala, da increible zelan arlo zientifikuan, ixa inkesten %90an mutilek erantzun dauien aukeratuko zauiela zientifikua edo birtuala, eta neskek aldi berian ez dauen aukeratzen.*

ERRONKAK

- Instituzio publikoen konpromisoaren beharra, neurri estrukturalak hartuta: gaia zeharlerrotasunez landu beharra, prostituzioaren gaia jorratzen hasi, e.a.
- Ikastetxeetan lantzekoak: generoa, indarkeria matxista, sexu heziketa, pornografia, e.a.

PROFILA

- EMAKUMEAK
- MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEAK
- GAZTEAK

LOTURAK

LANAREN ETORKIZUNA
(4.2.2. eta 4.2.3.)

HEZKUNTZA
(4.4.1. eta 4.4.3.)



4.1.3. Euskara inklusiorako elementu da. Nola egingo dugu?

Euskararen erabilera eta migratuen euskalduntzea izan dira hizpide nagusi.

IDEIA GAKOAK

- Erabileraren jaitsiera, bereziki erabilera informalean eta mutil kuadrilla gazteetan. Arrazoiak:
  - Herri txikietan herri handietako pertsonen etorrera.
  - Internet, telebista, e.a. gazteengan nabaritzen da.
- Euskararen gaia oso lotuta ageri zaigu migratuekin. Iritzi eta jarrera ezberdinak jaso dira, migratuen bizipenei loturikoak bai eta hemen jaiotakoek bizitakoak ere:

Migratuek esanak:

- Euskara ikasteak ateak zabaltzen ditu eta integraziorako giltza garrantzitsua da.
- Migratu askok - Espainiatik etorriak, zein migratu internazionalak - minak dituzte hizkuntzaren gaiaren inguruan. Bizipen desatsegin horiek eskolarekin loturikoak dira.
- Inposiziotik bizi dute askok gaia: "Espainiera denok ulertzen badugu, zergatik eman horrelako garrantzia euskarari?". Hori da ezagutzarako urratsa ez ematearen arrazoietako bat.
- Euskara ikasteko zailtasunak: Euskaltegietako ordutegiak eta prezio garestiegiak arazo nagusitzat.

Hemen jaiotakoek esandakoak:

- Migratuek Euskal Herrian dauden onura sozialak nahi dituzte, baina euskararik ez.
- Migratuak euskarara erakartzeko, pertsonen garapenaren ikuspuntutik jorratu behar da gaia. Euskaraz ez jakiteak ateak ixten ditu laneratzean. Hori ulertarazi behar zaie.
- Hemen jaiotakoei ere inklusioaren gaian lan batzuk eskatu behar zaizkie: hizkuntz kodeak aldatzea, euskara batura pasatzea, e.a.

ARRISKUAK

- Euskalgintzaren moteltzea edo apalaldia:
  - Gizarteak bere osotasunean ez dauka guztiz sartuta gizarte euskaldun batera joan behar dugula. Bailara honek eduki zuen bultzada hori gaur hoztuta dago.
  - Errelebo falta: Mugimendu sozial gisa euskalgintza existitzen da?

ERRONKAK

- Hezkuntza zentroetan euskararekin lotutako harrera egokiaren premia.
- Hezkuntza ez formalean egon liteke euskara sustatzeko giltza.
- Unibertsitatea eta MU euskaldundu beharra -Ikasgai asko espainolez-.
- Diskurtsoa maitasunera, ilusiora ekarri beharra eta abertzaletasunetik urrundu beharra.
- Eskualde mailako euskara elkarte indartsu bat, herri bakoitzak euskara elkarte bat izan ordez.
- Euskaltegien eskaintza behar berrietara egokitu beharra.

> *Aprender castellano vale 10€, euskera 400€. (...) Las personas migrantes necesitamos cursos intensivos para aprender el euskera, porque es una necesidad para el acceso al trabajo.*

PROFILA

- EUSKALGINTZA
- MIGRATUAK
- DEBAGOIENEAN JAIOTAKOAK

LOTURAK

- AUKERA BERDINTASUNA (4.1.1.)
- GOBERNANTZA KOLABORATIBOA (4.6.1.)
- HEZKUNTZA (4.4.3.)



4.1.4. Etorkizunaren zama ere bizi dute gazteek

Gazte kolektiboaren inguruan, gazteek beraiek asko hitz egin duten arren, helduengandik ere jaso ditugu hainbat kezka eta narratiba.

IDEIA GAKOAK

- Helduen arabera, gazteek herrian parte ez hartzeko arrazoiak:
  - Arazoak modu indibidualean ikusten dituzte, eta ez modu kolektiboan.
  - Konformistak dira eta ardurak hartzeko zailtasunak dituzte.
- MUko ikasleak aktibatu beharreko potentzialtzat ikusten dira. Aste guztia bailaran pasatzen dute, eta kulturalki zein sozialki ahalmen handia izan dezakete.
- Adinartekotasun gutxi, belaunaldien arteko komunikazio falta.
- Gazteek esandakoak:
  - Antolakuntzan parte hartze handirik ez, baina beraien ekintzetan bai.
  - Gazte mugimenduan pil-pilean dauden gaiak: krisi klimatikoa eta feminismoa.
- Etorkizunarekiko kezka nabarmena dute. Ezegonkortasun garaiak bizi dituzte eta datozenak hobeak izango ez direlakoan daude.
- Gazteek betetzen dituzten lan prekarioak.
- Gazte lokalen kontua kezkaz bizi dute helduek: Zergatik egon behar dute, hor, zuloan sartuta?
- Droga kontsumoarekin lotzen da gazteen kolektiboa.

> *Gazteak talde hermetiko gisa ibiltzen gara, koadrilismo handia dago. Honek gazte asko baliogabetzen ditu.*

ARRISKUAK

- Sekula izan den gazte belaunaldirik prestatuena dago.
- Gazte etorkinen afera kezkaz bizi da: beti migratuaren rola jokatzen dute besteen begietara eta harreman sarea eraikitzea asko kostatzen zaie.
- Lokalak eta tabernak lirateke gazteak elkartzeko dituzten lekuak. Aisialdi molde horrek sustantziekiko lotura dakarrela aipatu da.
- Drogen kontsumoa geroz eta gazteago hasten da, eta lokaletan ematen den aisialdi ereduak badu horrekin zerikusirik.

> *Sabemos que en primero, segundo, tercero y cuarto de DBH hay consumo (Arrasate, Eskoriatza y Aretxabaleta). (...) En el primer ciclo se mueven entre el 5% y 8 % y en el segundo ciclo dan un salto, justo en el mismo momento donde empiezan a funcionar los locales.*

ERRONKAK

- Komunitatea drogen gaiari behar bezalako erantzuna ematea.

> *Mi opinión no es una crítica a los colegios. Mi opinión es una crÍtica a la sociedad. En la medida que nosotros como sociedad nos hemos acomodado, los chavales han dejado de pensar. No se les educa para pensar, se les educa para competir, y mal además.*

PROFILA

- ASKOTARIKOA (**GAZTEAK**, GURASOAK, HELDUAK, HEZKUNTZA ETA OSASUN ARLOA)

LOTURAK

- KULTURA (4.5.3.)
- LANAREN ETORKIZUNA (4.2.2.)

4.1.5. Ongizatea amets: batzuk eusteko ahaleginetan, beste batzuk iritsi ezinda

Eskualdean bizi kalitate altua dago, oro har. Halere, komunitatea beldur da bizi kalitateari eustea gero eta nekezago izan daitekeelako. Bestelako errealitatea bizi duten herritarrek buruhauste franko dituzte egunekoari edo biharkoari erantzuten.

IDEIA GAKOAK

- Bizi kalitatea edo ongizatea ondorengo alderdiekin lotzen da:
  - Lasaitasuna/Segurtasuna: intseguritate sentsazioa zabaltzen, batez ere, Arrasaten eta adineko emakumeen artean.
  - Zerbitzuak.
  - Errespetua kulturaniztasunarekiko.
  - Mugikortasunerako aukera.
  - Lana eta aberastasuna. Arrakalak:
    Bailarako diskurtso nagusia: *lana eta aberastasuna egon badaude, eta gainera, ondo banatuta*. Beste batzuren ustea: 2009ko krisitik hona lana asko jaitsi da: *"Bizitza oso zail dago"*.
  - Erlijio praktikak aurrera eramateko lekuak edukitzea garrantzitsua da musumaldarrentzat.

ARRISKUAK

- Geroz eta errenten arteko ezberdintasun nabariagoak daude, eta honek kohesio soziala kaltetzen du.
- Bizi kalitate eta ongizate maila altuak, bestalde, kalteak ere eragiten ditu:
  - *Herri bizitza*. Herri bizitzaren apaltzeak, nolabait, bizi kalitateari kalte egin dio.
  - Bizi kalitatea mantendu nahiak ongizatea modu indibidualistan zaintzera garamatza: erosoegi, errazkerian jausi, zentzu kritikoa galdu, ekintzailetasuna eta berrikuntza moteldu.

> *Azken 20 urteotan ekonomikoki oso ondo bizi izan gara, etxean ere ezagutu izan dut hori -zertarako estudiatuko dut, joaten naiz Fagorreko katera eta 1.500-1.600 euro ordaintzen didate; como Dios, kotxea, bestea-. Epoka baten oso ondo bizi izan gara, afaria, markako arropak, horrek lokartu du egin du jendea, nekeza da horri buelta ematea.*

PROFILA

- ASKOTARIKOA (KOOPERATIBISTAK, HERRI TXIKIETAKO HERRITARRAK)

LOTURAK

- KULTURA (4.5.3.)
- IRAUNKORTASUNA (4.3.2.)

4.1.6. Zahartze aktiboan batzuk; beste batzuk abandonu eta bakardade sentimenduaz

Eskualdea zahartze prozesuari erantzuna emateko gauza izango den zalantzak daude. Bestetik, geroz eta adineko osasuntsuago eta aktiboagoak ditugu, mugimendu sortzaile direnak.

IDEIA GAKOAK

- Bakardadea dago adinekoen artean.
- Pentsioen auzia: adineko pertsona askok arazo ekonomiko larriak dituzte, batez ere, emakume alargunek.
- Biloben zaintzak ondorioak adineko batzuengan: aisialdiaz gozatzeko traba, erabiliak izatearen sentsazioa. Gurasoen enpleguetan kontziliatzeko neurri zehatz eta eraginkorrak falta dira.
- Adinekoen zaintza:
  Zaintza lanetan dabiltzan emakume Hego Amerikarrek pairatzen duten egoera aipatu da: XXI. mendeko esklabutza.
  Adinekoek pentsatu beharko dute nola nahi duten zainduak izatea.
  Batzuentzat, erresidentzia=abandonua.

Gero eta ahots gehiago entzuten ari naiz adinartekotasunearen garrantziaren inguruan. Emakume Txokoan, adibidez, gertatzen da nahasketa hori. Adin nahasketarekin sekula pentsatuko ez genituzkeen ideiak entzuteko aukera izan dezakegu eta gizartean zer pentsamendu dagoen ezagutzeko aukera ematen digu.

ERRONKAK

- Adinekoentzako zerbitzuetan aldaketak beharrezko ikusten dira:
  - Eguneko zentroetan plaza gehiago.
  - Aisialdirako aukera gehiago: erretiratuen etxe gehiago, auzoetan banatuta.
  - Mugikortasunarekin lotutako beharrak: Herri txikietan adinekoek mugikortasun arazoak dituzte - Garraio publiko gutxi eta egokitu gabea -.
  - Erresidentziak handiagoak eta beste eredu batean oinarritutakoak; Egoitza komunitarioak: Etxe tutelatuak, sukalde, egongela eta abar konpartituak, baina logelak ez.
  - Inoiz baino adineko aktiboagoak. Lanleku eta gizartean beraien esperientziak kontatzea ezinbestekotzat jotzen dute. Jakintza asko galtzen gabiltza gizarte moduan.

En la comarca somos como 8.000 jubilados en asociaciones. Ahora tenemos la comarca un poco mas conformada. Más comarca. Queremos construir comarca. Lo más serio es el aspecto de Lagunkoia. Tenemos acordado poner en común lo del río lo de la limpieza. Los perros. Las residencias y el transporte.

PROFILA

- ADINEKOAK
- ZAINTZAKO LANGILEAK

LOTURAK

IRAUNKORTASUNA (4.3.1.)

4.1.7. Etxebizitza arazo sozialen ispilu bihurtzen

Elkarrizketatuen arabera, etxebizitza gaiarekin arazo bat dago eskualdean.

IDEIA GAKOAK

- Prezio altuak etxeak erosteko, baina, batez ere, alokatzeko. Alokairu politikarik ez dago.
- Etxebizitza falta. Baina, era berean, etxe hutsak badaudela azpimarratu da. Azken horiekin zer egin pentsatu behar da.
- Debagoienean ikasle asko daudenez, ezkutuko ekonomia asko existitzen da alokairuekin.
- Etxebizitza bat eskuratzeko arazorik larrienak dauzkate migratuek eta gazteek.
- Migratuei etxea alokatzeko beldurrak eta aurreiritziak daude.
- Eskualdeako etxe gabetze gehienak Debagoienean jaiotako pertsonek pairatu dituzte.

> *Yo no entiendo que un alquiler cuesta más que una hipoteca, eso no debería ser así, es de los pocos sitios que es así.*

ARRISKUAK

- Etxebizitzaren arazoa bestelako arazo sozialen sustraia da: zaharkituta gelditzen dabiltzan etxeak dauden auzoetan, "ghettifikazio" prozesuak gertatzen ari dira.

ERRONKAK

- Hausnarketa sakona falta da.
- Bizikidetza eredu berriak eraiki beharra.
- Arazo batzuk konpartituak dira, beraz, eskualdeko etxebizitza plan bat beharko litzateke.

PROFILA

- GAZTEAK
- MIGRATUAK

LOTURAK

AUKERA BERDINTASUNA (4.1.1.)

4.1.8. Homofobia euren gorputzetan bizi duten pertsonak daude eskualdean

Indarrean jarraitzen dute genero rol eta bizi izateko eredu zurrunek, nahiz eta gazteek sexualitatea askatasun handiagoz bizi.

IDEIA GAKOAK

- Homofobia existitzen da bailaran. Pertsona homosexual askok hirietara joan beharra dute.
- Bullying homofobikoa jasan dute LGTBIQ+ kolektiboko gehienek.
- Neska eta mutilen taldeen rol eta jolasak bereizita daude. Genero rol banaketa zurrun hori homofobiaren errotzat hartzen dute elkarrizketatuek.
- Funtsezkotzat jotzen da lumarik ez izatea homofobiarik ez bizitzeko. Luma asko zigortzen da.
- Legea gizartearen mentalitatea baino aurreratuago dagoelako ustea.
- Homosexualitatearekin gazteria oso desberdin dator. Asko naturalizatu da, normatibizatzen doan kontu bat da, aldarrikapenetik at.

ERRONKAK

- Hezkuntzan sexu heziketa modu integralagoan landu, eredu ezberdinak ikusaraziz.
- Espazio seguruak sortu beharra bailaran: Kattalingorri bezalako proiektuak

PROFILA

- LGTBIQ+ KOLEKTIBOKO KIDEAK

LOTURAK

HEZKUNTZA
(4.4.1. eta 4.4.3.)

Elkarrizketatuek aipatutako proiektu batzuk:

GAIA	PROIEKTUA	ERAGILEA/K
Inklusioa	*Bizimodua berreraikiz* dokumentala	IMME
	Harrera etxeak	
	Harrera plana	Udal ezberdinetan
	Suitzako bono sistema moduko bat "aisialdirako bono"a, ekintzetarako laguntza	Arrasateko udala
	Elkarbizitza plana sortzen	Arrasateko udala
	Eguneko zentroak	
	Kale hezitzaileak	
	Aniztasuna lantzeko tailerrak	
Feminismoa	Emakume Txokoa	Arrasate
	M8ko plataforma	Debagoeina
	Herrietako talde feministak	
Euskara	Auzoko	
	Euskaraldia 2020	
	Barnetegia	
Zahartzea	Sasoibide proiektua - adinekoentzako aisialdi, kirol eta kultur ekintzak antolatzen ditu	
	Lagunkoia	Debagoeina
Etxebizitza	Udalek gazteek etxebizitzak alokatzeko diru-laguntzak	
LGTBIQ+	Harrotasun taldea	Bergara





4.2. Lanaren etorkizuna

Lana, eta zehazkiago esanda enplegua, hizpide nagusi izan da solasaldi gehienetan. Industrializazioak pisu handia izan du eta du, egun, eskualdean; eta horrek eskualdearen paisaia eta pertsonen izaera itxuraldatu ditu.

4.2.1. Sorrerako kooperatibagintzari aitortza, egungoa berrasmatzeko premian

Kooperatibagintza eskualdearen markatzat hartzen da. Txalogarritzat jotzen da sortutako aberastasuna eta ongizatea eskualdeko etxe askotan: enplegua sortu, aberastasuna banatu, eta, parte hartzea. Halere, kooperatibek merkatuan lehiatu beharra dute, eta, lehia horretan, balio kooperatiboak ahuldu direla diote hainbatek, eredu lehiakorrago eta indibidualagoen mesedetan.

IDEIA GAKOAK

- Kooperatiba enpleguari eusteko gauza izan da. Arrasaten eta Bergaran enpresa handi asko desagertu dira, kooperatibei esker, ordea, eutsi egin zaio enpleguari.
- Barne funtzionamenduan hobetzeko alderdiak ikusten dira: lidergo estiloan, bazkide izatearen zentzuan eta desorekak lan aurrerakinetan (bereziki ebentualekin).
- Berdintasun printzipioak hutsuneak ditu generoaren gaian: lanpostu feminizatuak, baliabide gutxi jartzen dira genero berdintasuna lantzeko, eta, azkenik, gizonen pentsamendu eta ikuspegitik erditutako kooperatibak balio justuekin aberasteko desioa.
- Eskualdearen kulturaren parte da kooperatiba; pentsatzeko, funtzionatzeko eta elkarrekin eraikitzeko kultura sortu du.
- Aitzitik, mugimendu kooperatibo indartsua izateak eskualdeko dinamika ahuldu ote duen zalantzak agertu dira, kale giroa eta parte hartzea apaltzen baitoaz.
- Kooperatibak herritik aldendu dira, zenbaitentzat, arlo sozialean eragiteko daukaten konpromisoa lausoa eta estetikoa da.
- Ingurumenean kaltea sortzen dute, industria askok bezala.
- Merkatuan lehiatzeak dedikazio eta energia handia eskatzen du. Lanaren exijentzia eta intentsitatea kontziliazioarekin, zaintzarekin eta bizitza komunitarioarekin uztartu beharra.
- Izaera parte hartzailea bai, baina eguneroko lanean eta kudeaketan parte hartze hori oso mugatua dela sentitzen duenik ere bada.

> *Kooperatibagintza hain aurreratu izan, mundu mailan erreferente, eta herrietan hain gutxi aurreratzea parte hartzean edo auzoen bizitasunean, esaterako, inkoherentzia handia da.*

ARRISKUAK

- Arriskua dago arrakala handitzeko goi mailako lanpostu eta lanpostu prekarizatuen artean. Birkualifikazioa nola egin pentsatu beharko litzateke.
- Kooperatibaren bere balioak "araudi" edo "paperean" gelditzea. Balioak errealitateara ekarri eta praktikarekin eredu izateko premia du.

ERRONKAK

- Kultura kooperatiboa berreraiki eta kooperatibagintza berrasmatu. Balio kooperatiboak gaurkotu belaunaldi berriek bizimodua ulertzeko duten erara: ingurumena, lana ulertzeko "moduak", zaintza komunitarioa, emakumeen protagonismoa, e.a.
- Trantsizio energetikoa aukera izan daiteke kooperatibentzat. Gizartearentzako erronka den energia besteen esku uzten dabil eta ezin du besteen esku utzi erantzukizun hori.
- Arreta pertsonetan jarri beharko da etorkizunean: elkarlana sustatu eta gizartearekiko lotura indartu behar dute kooperatibek.
- Demokraziaren gaian sakondu.
- Formazio kooperatiboa eta kualifikazioa hobetu: gazte eta etorkinei lagundu behar zaie ibilbide profesionala egiten.

PROFILA

- KOOPERATIBISTAK

LOTURAK

IRAUNKORTASUNA
(4.3.3.)

AUKERA BERDINTASUNA
(4.1.1. eta 4.1.2.)

4.2.2. Laneratzeko egiturazko oztopoak dituzte etorri berri, emakume eta adinekoek

Oro har, esan liteke, enplegua diru iturri izateaz gain, gizarteratzeko tresna garrantzitsua dela. Pertsona batzuek zailtasun handiak dituzte lan duina izateko: etorri berriak, emakumeak, 50-55 urtetik gorakoak, gazteak eta kualifikazio gabekoak. Zailtasunen jatorria askotarikoa da, konplexua.

IDEIA GAKOAK

- Kualifikazio eza. Lana, familia eta ikasketak uztartzea zaila denontzako, baina kolektibo batzuentzat ezinezko: emakumea, etorri berria eta familia duena bere kargu.
- Ikasketak izanda ere, ikasketa teknikoak dituztenek errazago aurkitzen dute lana eskualdean.
- Jatorriaren araberako lan banaketa: gizon musulmanek erraztasun gehiago emakumeek baino. Lan feminizatuak latinoamerikarrek egiten dituzte.
- Aurreiritziak barneratuta enpresetan, Lanbiden eta gizartean, oro har: hemen jaiotakoak lehenago aukeratzen dira.
- Laneratzeko euskarak aukerak zabaltzen ditu. Halere, migratuentzako oztopoak sortzen ditu.
- Aniztasun funtzionala duten pertsonen laneratzea konplexuagoa da.

> *Las experiencias laborales de las personas migrantes no se miran igual que las experiencias de las personas de aquí. Los filtros racistas que existen influyen mucho para que las personas migrantes podamos acceder a determinados trabajos. Sobre todo si es un tipo de trabajo donde hay otras personas blancas dispuestas a acceder.*

ARRISKUAK

- Goi mailako ikasketek ez dute lana ziurtatzen (are eta gehiago ikasketa ez zientiko-teknikoetan).

> *Gero uste dut, heziketan asko inbertitu dugula, baina ez lan aukeretan. Hau da, ez dago lanik, oso oso prestatua dagoen kolektibo batentzat. Hau uste dut, goi mailako ikasketekin gehiago gertatzen dela. Goi mailako modulua eginda, lehenago aurkitzen da lana. Gertatu zaigu pinuarena. Saldu digute unibertsitatera joanda zerbait garela, eta onena dela guretzat, baina gezurra da.*

ERRONKAK

- Etorkizunean, zuzeneko eskulana gutxituko da. Kolektiboen araberako kualifikazioa landu beharko da, ez alderantziz.
- Homologazioa errazteko zerbitzua sortu.

PROFILA

- MIGRATUAK
- ARLOKO ELKARTEETAKOAK

LOTURAK

HEZKUNTZA (4.4.3.)

AUKERA BERDINTASUNA (4.1.1.)



4.2.3. Sektoreen arteko desoreka: enplegu prekarioak sektore eta kolektibo batzuk kolpatzen ditu

Krisiaren ondorengo urteetan prekarietatea eta ziurgabetasuna handitu da, bereziki, kolektibo jakin batzuetan: gazteak, etorri berriak, emakumeak. Eta sektore hauetan: zaintzan lehenik, ostean, zerbitzuetan, kulturan eta sorkuntzan, eta azkenik, industrian.

IDEIA GAKOAK

- Kualifikazio falta:
  - Ikasketa teknikoak ez izateak enplegurako aukerak zailtzen ditu.
  - Etorri berriek ikasketak homologatzeko arazo handiak dituzte. Herrialdearen arabera prozesuak asko luzatzen dira. Sarri asko, beraien kualifikazioa baino baxuagokoak diren lanak egiten dituzte.
- Soldata ezberdintasunak lan bera egiteagatik, lotura sozio-laboralaren arabera: behin behineko langileen, ETT-etako langileen eta bazkideen artean.
- Lan batzuk feminizatuta daude. Produkzio lanak zaintza lanen aldean hobeto ordainduta daude. Lan horiek emakume eta etorri berriengan jausi dira eta gizartean balio gutxi dute.
- Lanean egonda ere, hainbatek arazoak dituzte bizitza duina izateko, soldatak baxuak direlako.
- Bizitza osorako lana amaitu da eta horrek ezinegona eta beldurra sortzen ditu.

> *Xigorgailu bat gabe bizi zaitezke, baina pertsona bat zaintza barik ezin da bizi. Kontzientzia hartu dugu etxez etxeko zerbitzuetan gauden langileok gure lana beharrezkoa dela, ahaldundu egin gara. Denak gara emakumeak. Gizartean, ordea, produkzioan daudenek gehiago irabazten dute, tostadorak egiten dituztenek.*

ARRISKUAK

- Arazo estrukturalak daude sektore eta kolektibo jakin batzuetan. Krisiak horiek oker ditzake.

> *¿Quien mira las condiciones en las que trabajan las mujeres de hogar? Nadie mira. Los temas que no les tocan directamente a las personas de aquí no se toman como prioridad.*

ERRONKAK

- Enpresak sortzea eta kolektiboki baldintzak hobetzea. Sindikalgintza indartzea.
- Administrazioak lan poltsak osatzea.
- Formazio kualifikatua egiteko bidea erraztea gazteei eta etorri berriei.
- Oinarrizko errenta unibertsal bat sortzea, proba pilotu gisa.

PROFILA

- MIGRANTEAK ETA ARLOKO ELKARTEETAKOAK
- HELDUAK ETA HEZKUNTZA ARLOKOAK

LOTURAK

HEZKUNTZA (4.4.1.)

AUKERA BERDINTASUNA (4.1.1.)

4.2.4. Enpresa eredu iraunkorrago batera jo beharra

Enpresa eredua asko aldatu da kooperatiba, SL edo SA izan. Lehen enpresak gertukoagoak ziren, enpresaria herrikoa, eta, zentzu batean, herriaren eta langileen ongizateari begiratzen zioten. Gaur egun, aktibitate tradizionala duten enpresa txiki eta ertainek bizirauteko zailtasun handiak izango dituztela aurreikusten da. Enpresei eredu iraunkorrerako trantsizioa egitea eskatzen zaie, arlo sozialean, ingurumenean, kultura eta ekonomia aldetik.

IDEIA GAKOAK

- Enpresa eta gizartearen arteko lotura estutu, enpresa gizarteko parte bilakatu.
- Iraunkortasunaren gaiari heltzea eskatzen zaie enpresei eta produkzioa modu ekologikoago batean egitea. Debagoieneko airearen kalitate eskasaren errua industriari egozten zaio.
- Zaintzari erreparatu. Kontziliazioak, lankideen arteko harremanek eta emozioek lehentasuna izan beharko lukete etorkizuneko enpresetan.
- Txandaka lan egitearen inguruko hausnarketa egin beharra. Lan egiteko modu horrek ondorioak ditu pertsona, familia eta komunitatearengan.
- Enpresa txikiei administrazioa oso urrun gelditzen zaie.
- Enpresen artean harreman onak daude, oro har. Baina lankidetza proiektuak sortzea zaila da, bakoitzak bereari eusten baitio. Proiektu estrategikoetara iristeko zailtasunak.
- Gaur egun aldaketak oso bizkor gertatzen dira, eta etengabe formatzen egon beharra dagoela ikusten da. Oro har, erronka horri erantzuteko nahikoa aukera ez da eskaintzen.
- Enpresa parte hartzaile, garden eta ekitatiboa sortzea da hainbaten nahia, baita enpresari eta langileen arteko konfiantza sortu eta soldatan dauden aldeak txikitzea ere.

> *Modu autonomoan funtzionatu izan dugu (...), eta baliabideetan baino, jendearen lan egiteko eta antolatzeko indarrean daukagu gure tresnarik indartsuena. Jendearen lan egiteko kapazitatean oinarritu den garapena eduki dugu burdina bukatu zenean.*

ARRISKUAK

- Globalizazioak, aukerak eskaintzeaz gain, enpresa txikiei eta ertainei egoera zaildu egin die: txikiak izanik, handiekin lehiatzea zaila zaie eta negozio berriak sortzea nekeza zaie.
  Finantzaketa eta babes aldetik mugak dituzte. Horrek enpresak desagertzeko arriskuak handitzen ditu.
- Energia berriztagarriekin produzitzea garestiagoa bada, enpresek ez diote gai horri helduko.

> *Enpresa guztiak baldintza berdinetan lehiatu behar dira. Horretarako, denontzako izango den araua sortu eta denok betetzera jo behar dugu. Iraunkortasunaren gaia bakarrik ekintza sozialaren menpe utziz gero, aurrerabide mugatua izango du.*

ERRONKAK

- Enpresak sorrerako egiturekin bizirauten. Kultura eta eredu aldaketa batera jo beharra.
- Enpresek lagun-talde izaera berreskuratu. Taldetasuna zaintzen duten enpresak erakargarriago bihurtuko dira etorkizunean.
- Aldaketa azkarren aurrean, formaziorako aukerak handitzea gakoa izango da.
- Aliantzak eta sareak indartzea, proiektu estrategikoak sortzeko.
- Sindikatuekiko harremana beste modu batera antolatzeko erronka.

PROFILA

- ENPRESETAKO ARDURADUNAK ETA LANGILEAK
- HEZKUNTZA ARLOKOAK

LOTURAK

IRAUNKORTASUNA (4.3.3.)

AUKERA BERDINTASUNA (4.1.1. eta 4.1.2.)

GOBERNANTZA KOLABORATIBOA (4.6.2.)

4.2.5. Industriaren balizko gainbeherak izua sortzen du, bereziki automozioarenak

Debagoienean enpresa handi asko desagertu edo txikitzen joan dira azken hamarkadatan: Cerrajera, Algodonera, Otsein, Roneo, Elma, Fagor Etxetresnak e.a. Nagusienek ondo gogoratzen dute zer nolako aldaketak ekarri dituen horrek bailaran.
Enpresa handiak itxi diren arren, enpresa berriak sortu edo zeudenak handitzeko gaitasuna izan da eskualdean. Dena den, lanaren etorkizunak ikara sortzen du, ziurgabetasunagatik. Aurreko krisiak enpresa batzuk ahulduta utzi ditu, eta ez dakite beste enbata bati aurre egiteko gauza izango diren.

Aurreko krisia bezainbestekoa etortzen bada, (...) neurri oso gogorrak hartu beharko ditugu. (...) Krisiaren ondoren, jarraitu behar izan dugu inbertitzen, berritzen eta, aldi berean, erreserba handitzen. Gainera, enpresa txiki eta ertain askok internazionalizatu behar izan dute, eta, horrek, hasieran, inbertsio handia eskatzen du. Ez daukagu erreserbarik krisi gogor bati aurre egiteko.

IDEIA GAKOAK

- Hemengo industriaren pisua beherantz doa, jende pila gaur egungo bizi kalitatearekin mantentzea zaila izango da, berritu beharra dago.
- Orain dela 50 urteko gauzak egiten ari dira enpresa mailan, oro har. Balio erantsi gutxiko industria dago.
- Enpresak itxi dira, baina beheraldiak beheraldi, enpleguari eusteko egon den gaitasuna nabarmendu da, arrotasunez.
- Dibertsifikatzen jakin. Automoziora dedikatzen diren asko daude, arrisku asko daude.
- Mondragonek dituen elkartasun mekanismoak eta talde izaera goraipatu da.
- Automozioaren sektorea sektore gogorra da multinazionalekin orpoz orpo jardun beharra dagoelako: prezioak negoziatzeko ahultasuna, eskakizun handiak, margen txikiak, e.a.

ARRISKUAK

- Multinazionalek enpresak erosi edo desagerraraztea.
- Eskualdean dagoen ekosistema balantzaka jar dezake krisialdiak, izan ere, automozioaren krisiak, enpresak ez ezik, zentro teknologiko eta unibertsitateak ere kolpatu ditzakeelako.

ERRONKAK

- Energetikoki iraunkorragoak diren enpresak sortu.
- Gizarte mailan, pertsonak aldaketarako prestatzea, aldaketarako erresistentziak baititugu.
- Etorkizunari begirako enplegu berriak ikertu behar dira.
- Talentua erakartzeko lan baldintza duinak eta proiekzioa eskaintzea.
- Administrazioak berrikuntza babestu eta erakunde berritzaileak indartzeko bidea egin.
- Mundu digitalean neskak ere sartu beharra, arlo horretan ere lanpostuak sortuko baitira.
- Aztertu 60. hamarkadako ekintzailetasuna, elementu gakoak atera eta ekosistema eratu
- Enpresak teknologikoki indartu bai, baina sorkuntza sektorea ere indartuta. Sorkuntza modu irekian ulertuta (filologia, arte ederrak, bideo jokoak, e.a).

PROFILA

- KOOPERATIBA ETA ENPRESETAKO LANGILE ETA ARDURADUNAK
- HEZKUNTZA ARLOKOAK

LOTURAK

IRAUNKORTASUNA (4.3.3.)

KULTURA (4.5.1.)



4.2.6. Tokikotasunaren balioa indartzeko ahaleginak nekazaritzan eta herriko merkataritzan

Industrian indartsu den eskualdeak desorekak bizi ditu tokikotasuna indartzen duten bi sektoretan. **Merkataritza arloan**, herrietako denda txikien egoera izan da iritzi gai nagusia. Elkarrizketatutako pertsona nagusi askok garai bateko merkataritza sasoi onean zegoela gogoratzen dute. Egun, ordea, herriko denda asko ixten ikusi dituzte, eta hori lotzen dute kale eta herrien bizitasunarekin.

IDEIA GAKOAK

- Dendak ixtearekin batera, kaleko giroa ere itzaltzen doa.
- Kontsumo ohiturak aldatzen: erosketak interneten, merkatalguneetan edo hiriburuetan.
- Lehiatzea gero eta nekezagoa zaie dendariei.

> *En Mondragón hay mucha gente que del viernes en adelante no vive en Mondragón. Los jóvenes compran por internet. El pequeño comercio no está recibiendo ayudas institucionales. Nos estamos familiarizando en exceso con no tener tiendas en la calle. Hay que darle análisis especial a este sector.*

ARRISKUAK

- Herriko merkataritzaren ahultzeak eragina du komunitatearen harremanetan, aisialdian eta eskualdea bizitzeko toki erakargarri egitean.

ERRONKAK

- Eskualde mailan merkataritza arloan azterketa sakona egin.
- Herrian erosteko sentsibilizazio kanpainak eta merkataritza biziberritzeko esku hartzeak.

Lehen sektoreari dagokionez, bailaren izaera industriara bideratuta dago. Sasoi batean, baserritar asko enpresetan lanean hasi ziren eta sektorea alboratuta gelditu zen, abandonatuta.

IDEIA GAKOAK

- Paradigma aldaketaren beharra: tokikotasunera eta txikitasunera itzuli. Jendeak bizirik iraungo badu, hemengo edo munduko edozein baserritarri esker biziraungo du.
- Bizitza duina izatea da erronka. Eskualdeko hainbat gaztek lehenengo sektorearen aldeko apustua egin dute. Halere, baserritarren egoera gogorra da.
- Kontsumitzaileen kontzientziazio falta: kanpoko janaria erosten dugu edozein baldintzatan ekoitzita.
- Basoak kudeatzeko eredu jasangarriak daude. Profesionalizazioa eta espezializazioa beharrezko.

ARRISKUAK

- Batzuk baserriaren aldeko apustua egin zuten bizimodu lasaiagoaren bila. Gaur egun, ordea, batzuk azkarrago bizi dira baserritarraren orduak ez duelako ezer balio.

> *Baserri mundura irizpide kapitalistak indartsu iritsi dira eta horrek markatzen du ze baserri mota daukagun; gehiengo batek irudikatzen du baserria enpresa gisara, eta errentagarritasuna eskatzen zaio, inbertsioek etekina eman behar dute... eta horrek ez dauka loturarik naturaren katearekin.*

ERRONKAK

- Sareak sortu elkarri babesa emateko, maila teknikoan eta emozionalean.
- Gizartearen kontzientziazioa. Beste iraultza bat dator: ondo jatea balioan jartzen hasi da.
- Slow Debagoiena: hemengo produktu ekologikoak kontsumitu, garraio publikoa indartu, e.a.
- Administrazioaren papera berraztertu: burokrazia txikitu, laguntasuna handitu, e.a.
- Jangeletan bertako produktuak erabiltzea aukera on bat da (halere ez dago nahikoa genero).
- Basogintza industria gisa ikustea. Egurrarekin aplikazio berrietarako ikerketa berriak daude.

PROFILA

- MERKATARIAK
- 1. SEKTOREKO PROFESIONALAK, HELDU ETA ADINEKOAK

LOTURAK

IRAUNKORTASUNA (4.3.2.)

KULTURA (4.5.1. eta 4.5.2.)

4.2. Lanaren etorkizuna

Elkarrizketatuek aipatutako proiektu batzuk:

GAIA	PROIEKTUA	ERAGILEA/K
Laneratzeko inklusioa	Diru ekarpena enpresa txikien laneratzeko inklusiorako eta Ulmaren konpromisoa Bidebarriko laneratzea eman ondoren, pertsonak Ulmako kooeratibetan lan egiteko	Ulma + Oñatiko Udala + Bidebarri
	Harrera eta laguntza zerbitzua	Ekin
	Gizarteratze eta laneratze sarea	Mankomunitatea
Langabezia	Administrazioa eta enpresa arteko lankidetzak	Ulma + Oñatiko Udala
2.sektorea	SZukaldatzen LAB ekimena	
	BNI aukera	Debagoiena
	Enpresare taldea	Bergara, Antzuola, Elgeta
3.sektorea	Komertzio elkarte ezberdinek egindako ekimenak, merkatuak : *Merke merkatua, Ixa Debalde...*	
1.sektorea	Eskualderako "recuperacion de zonas rurales deshabilitadas" proiektua	
	Debagoieneko "agrotaldea"	
	Lurrak lortzeko "intermediario" figura sortu zen	Oñatin
	Oñatiko migratuekin ortugintza proiektua	Bidean - Caritas Oñati
	Arbigara proiektua	Bidean Arrasate
	Gatzaren ekoizpena/museoa	Gatzaga
	Debagoieneko nekazarien arteko sarea	
	Ereindajan	Bergara + Arrasate
Talentua	Talentuaren gaia lantzeko sare bat	Arrasateko udala



4.3. Iraunkortasuna

Mugikortasuna, energia, basoak eta kontsumo ereduak jaso ditugu ardatz honetan.

4.3.1. Garraio publikoa hobetu eta kontzientziazioa landu beharra dago

Mugikortasuna izan da iraunkortasunaren arloan gairik aipatuena. Kotxea erabiltzeko dependentziaren muinean sentsibilizazio falta dago. Ez dago garraio publikoa edo bizikleta erabiltzeko ohiturarik. Gainera, herritarren mentalitatean eta mugitzeko moduetan aldaketa sakonak eman ezean, garraio publikorik ez da erabiliko.

IDEIA GAKOAK

- Autoaren erabilera handia da: pilaketak, herrigunean trabak eta kutsadura eragiten ditu.
- Autoa erabiltzeko arrazoia: denbora eta azkartasuna.
- Kontsumo ohiturak eragina du autoaren erabileran: merkatalguneak kanpoaldean daude.
- Garraio publikoa, zerbitzua hobetu eta kontzientziazioa landu beharra aipatu dira. Esaterako, herribusen zerbitzua hobetzea, irisgarritasuna bermatzea, autobus kopurua handitzea etab.

Los que usamos transporte público para ir a trabajar hemos estado mejor, ahora hay menos horarios por los recortes. Ahora hay mas problemas...

ERRONKAK

- Herri txiki eta auzoetako garraio publikoa urria da, kotxea erabiltzera behartuta daude.
- Mugikortasun plan bateratu bat, eskualde mailakoa.
- Kontzientziazioa landu eta autoari erraztasunak ez emateko politikak martxan jarri beharra.
  - Herrigunea kotxerik gabeko gune bihurtu, bizikleta erabilera bultzatu, kotxea partekatzeko moduak bultzatu, peatonalizazio gehiago, aparkatzeko trabak jarri, e.a.

PROFILA

- ASKOTARIKOA

LOTURAK

IRAUNKORTASUNA (4.3.3.)

KULTURA (4.5.1.)

4.3.2. Gure kontsumo ohiturak neurrigabeak dira, kontsumo eredua aldatu behar da

Kontsumorako espazioez eta kontsumo praktikak izan dituzte hizpide.

IDEIA GAKOAK

- Kontsumoa gure bizitzaren ardatz nagusi bihurtu da (kultura, gizarte zerbitzuak, osasuna, hezkuntza…). Bizi eredu ez jasangarriaren inguruko hausnarketa falta dago.
- Nekazaritza eta bertako produktuari dagokienez: hemengo produktuen eskasia, lurrarekiko atxikimendu falta, nekazarien baldintza kaxkarrak eta ortuen kokapen periferikoa aipatu dira.
- Kontsumismoari zuzenki loturik dauden praktikek eragindako kalteak aipatu dituzte:
  - Interneten salerosteko aukeren ondorioz, denda txikiak ixten eta kaleak hiltzen.
  - Erosi-bota sisteman bizi gara. Horrek kalte ekologiko eta humanoa sortzen du.

ARRISKUAK

- Eskualdeak dependentzia handia du kanpo herrialdeekin lehengaietan, hau da, jakietan, energian eta industriarako materialean.
- Erregai fosilak tokatzen dena baino gehiago kontsumitzen dira, eta, ondorioz, lurrazpian dagoen $C0_2$-a lurrera ateratzen gabiltza, klima aldaketa areagotuz.

ERRONKAK

- Arlo guztietako praktika onak bisibilizatu behar dira.
- Norbanakoen ohituretan eragiteko kontzientzia sortzea.
- Ingurumenaren babeserako neurri eta muga ausartak ezarri, zeharkako eta zuzeneko dirulaguntzekin batera.
- Ekologia gazteen balioekin batera lotu eta proiektu bateratuak egin.
- Elikadura burujabetzarako estrategia eta proiektuak: agroekologia, Ereindajan, e.a.

PROFILA

- ASKOTARIKOA
- EKOLOGISTAK
- INGURUMEN ARLOKOAK

LOTURAK

LANAREN ETORKIZUNA (4.2.6.)

AUKERA BERDINTASUNA (4.1.5.)

4.3.3. Klima aldaketaren gaian ekintzetara jotzeko erresistentziek daude, erosotasunagatik edo egoera emergentearen ikusgarritasun faltagatik

Erosotasunak eta gure ekintzen ondorioak ez ikusteak inaktibismoa dakarrela aipatu dute hainbatek.

IDEIA GAKOAK

- Urruti ikusten da klima aldaketaren gaia. Komunikabideetan presentzia handia du, baina jendartean ez dago aldaketa handirik. Gazteen kezken artean dago gaia.
- Instituzioek klima aldaketaren inguruan hartzen dituzten neurriei sinesgarritasun gutxi aitortzen zaie: egindako ekintzak erabaki estetikoak eta eraginkortasun gutxikoak dira.
- Administrazioan lidergo eta politika aktiboen falta dago.
- Energia berriztagarrien aldeko apustu garbia egitea falta da.
- Hondakinen gaian aurrera egin da. Halere, sentsibilizazio lan handia dago egiteko.
- Lur produktibo gehienak industriara bideratu dira eta horrek nekazaritzan eragina izan du.
- Naturaren presentziak (orokorrean aisialdiarekin lotzen da) eragiten ditu zenbait emozio eta sentimendu: lasaitasuna, gozamena, harrotasuna. Zaintzeko beharra aipatu da.
- Eskualdeko kutsadura maila altuak kezka sortzen du elkarrizketatu batzuengan, industria eta mugikortasuna aipatu dira horren erantzule nagusi bezala.

> *En Debagoiena, en las instituciones no hay recursos, no hay comisiones, no hay técnicos o departamentos... Aunque todos los ayuntamientos aportan un montón de dinero a la gestión de residuos, a lo que es a los ríos, forestal... nada, ridículo.*

ARRISKUAK

- Etsipena edo sinismen falta atzeman da batzuen hitzetan: Norbanakoen akzioek eraginik ez eta aldaketak egiteko denbora eta gaitasun falta.
- Naturagatiko harremana zeharo galduta daukagu eta iraganeko sarraskiak ezin izango ditugu konpondu.

ERRONKAK

- Erabaki indibidualez gain, erabaki kolektiboen beharra.
- Eskualdean burujabetza energetikora jo beharko litzateke, izan ere, kontsumitzen den energia guztia ezin baldin bada ere, zati bat behintzat, bertan ekoiztu beharra ikusten da.
- Eskualdeko industriak hausnarketa sakona egin beharko luke energiaren inguruan.
- Kontzientziazio lana egin beharra: energiaren alorrean gizartean ezezagutza handia dago.
- Hondakinen inguruko hausnarketa beharrezko, heziketa eta kontzientziazioaz batera. Zaborraren prozesua eta birziklapenaren garrantzia ezagutzera eman.
- Basogintzan egun garatzen diren politikak ezegokitzat jo dituzte, epe luzeagorako politika jasangarriak aldarrikatu behar dira.

> *Trantsizio energetikoan izan gaitezke espektadoreak edo saiatu champions -en egoten, eta ez bakarrik teknologia horiek inkorporatzen joan, baizik eta teknologia horiek sortzen joan. Aukera bat da hori, atento egotea hor.*

PROFILA

- EKOLOGISTAK
- INGURUMENZALEAK

LOTURAK

LANAREN ETORKIZUNA (4.2.4. eta 4.2.6.)

GOBERNANTZA KOLABORATIBOA (4.6.3.)

4.3. Iraunkortasuna

Hemen elkarrizketatuek aipatutako proiektu batzuk:

GAIA	PROIEKTUA	ERAGILEA/K
Mugikortasuna	Langileen mugikortasuna azterketa egin da + ekimen batzuk	Copreci
	Bizikleta elektrikorako kanpainak	Copreci, Ulma… + Orbea
	Mugikortasun kultura-aldatzeko kanpainak martxan jarri ditu: bidegorriak, eskolara oinez, autobus kanpainak...	Oñatiko udala
	Mugikortasun kultura-aldaketarako kanpainak	Ulma
	Mugikortasunaren inguruko parte hartze prozesua 2018	Bergarako udala
	Garraio publikoaren murrizketen aurkako firma bilketa	Arrasateko udal oposiziokoek
	Turismo jasangarria - Gatzebike	Gatzaga
	Autoan elkarrekin proiektua	Arrasateko Udala
	Mugikortasun astea herri ezberdinetan	
Kontsumo arduratsua	Ekonomatoa	Aramaio
	Harreman denda	Bidezko merkataritza
Klima aldaketa	Ekonomia zirkularreko proiektua martxan	Ulman
	Ekonomia zirkularreko lantaldea martxan	Mondragon
	Agenda 21	
	Debagoieneko aztarna ekologikoaren neurketa	Bagara
	Debagoieneko energia mapa	Mankomunitatea + Ekitermik
	Fridays For Future ekimena	Fridays for future Debagoiena
	Kontsumo arduratsia proiektua	Ederlan

GAIA	PROIEKTUA	ERAGILEA/K
Energia	Debagoieneko boluntario taldea	Goiener
	Probrezia energetikoan daudenei laguntzeko	Goiener soziala
	Energia aurrezeteko azterketa eginda + lanketa batzuk praktikan	Copreci…
	Plaka fotoboltaikoak teilatuetan	Mondragon Assembly
	Irla energetikoa	Oñatiko udala
	Energia berriztagarrien inguruko kontzientzia lantzen	Ederlan
	Energia ustiapen publikoa	Oñatiko, Gatzagako eta Aramaioko Udalak
	Recuperación de Biomasa forestal	AKF
	Birgaitzen proiektua	H-Enea
Hondakinak	Plastikoaren berrerabilpenerako proiektua	Ulma
	Atez ateko zabor bilketa	Oñati + Antzuola
	Plastikoa buruan ekimena	Aretxabaleta
	Altzarien jasoketarako proiektua	Emaus
	Herritarrentzako konpostu guneak eta konposta kudeatzeko guneak	Debagoieneko la herri denetan
Basoak	Basoa berreskuratzeko proiektua	AKF
	Basoen eta larreen kudeaketarako hausnarketa	Aramaio
	Herritar batzuk baso lurrak erosteko interesa, modu jasangarrian kudeatzeko. Debagoieneko gainerako herrietan ere aktibatzen ari da jendea	Aramaioko herritarrak
	Politika publiko egokiak ezartzen hasi da: eukaliptoa sartzea debekatu du, bertako basoei leku handiagoa uztea erabaki du… Neurri horiek herritarren kontzientziazioan eta bultzadan dute oinarria	Aramaioko udala
	Politika publikoak sustatzen ingurumeneko alor askotan, parte-hartze prozesuen bidez	Oñatiko udala
	Baso zaharraren berreskurapen "museoa" + bisita gidatuak	Errez koop.
	Etxezarretako basoa jendarteratzeko jaialdia eta bertako baso gisa berreskuratzeko proiektua	Besaide Arrasateko udala
Natura	Mendi elkarteetako ekimenak	
	Aramaio ezagutzeko bisitak	Amillena elkartea
	Aretxabaletako toponimia lantzeko proiektua	Loramendi elkartea

4.4. Hezkuntza

4.4.1. Hezkuntza modu integralean ulertu: harremanek eta emozioek lekua izango luketen hezkuntza sistema eraiki beharra dago

Hezkuntza etorkizuneko gizarte justuago bat eraikitzeko tresna nagusitzat jotzen da. Baina alderdi askoren zama jartzen zaio bizkargainean: balioen transmisioa, metodologiaren eraldaketa, e.a. Komunitate osoak parte hartuko lukeen hezkuntza sistema sortu beharko genukeela aipatu da.

IDEIA GAKOAK

- Debagoieneko eskaintza ona, 2 urtetik 22ra arteko hezkuntza sistema dago.
- Beste batzuk, berriz, kritiko azaldu dira egungo eskolarekin.
  - Eskolen helburuaren inguruan (pertsona akritiko eta sumisoak bilakatzen direla umeak), hezkuntza ereduaren inguruan (hausnarketarako espazio falta, jendartearekiko ardura garatzeko espazio berrien falta…) etab.
  - Gaur egungo curriculumaz gain, beste balio hauek lantzea proposatu dute: espiritualitatea, sormena edo artea, aniztasuna, errespetua, kooperazioa, e.a.
- Hezkuntza sistemak hobetu beharrekoak: gurasoen inplikazioa, irakasleen rola, metodologia.
- Gurasoen rolaz ondorengo kezka azaleratu da: balioen transmisioan duten delegazionismoa, haurra garatzeko eskaintzen den baliabide kopurua eta pobrezia pedagogikoa.
- Hezkuntza formalaren eta ez formalaren harremana estua eta sakona izatea komeni da.
- Hezkuntza ez formalak tresna izan beharko luke honetarako: sentipenak kudeatzeko (harremanak, zoriontasuna), sormena garatzeko (artea, espiritualitatea) eta euskararen erabilera bultzatzeko.

> *Hezkuntzaren helburua pertsona bizitzarako prestatzea da eta nik gaur egun ez dut ikusten horrela denik.*

ARRISKUAK

- Alderdi zientifikoari garrantzia gehiegi ematen zaio, eta bestelako balio batzuk ez dira lantzen, hankamotz dago sistema.
- Bestalde, hezkuntza sistema egungo lan munduaren beharrei erantzuteko zaharkitua dagoen pertzepzioa ere jaso ahal izan dugu.

ERRONKAK

- Metodologian proiektuetan funtzionatu beharra dago eta ikuspegi multidimentsionala txertatu periferian egon daitezkeen gaiak lantzeko.
- Ez-formala eta formalaren artean harremanak estutzeko eta elkartrukerako espazioak ireki.

PROFILA

- HEZKUNTZA ARLOKOAK
- GAZTEAK

LOTURAK

KULTURA
(4.5.2. eta 4.5.3.)

GOBERNANTZA KOLABORATIBOA
(4.6.2. eta 4.6.3.)

4.4.2. Sareen artean segregazio handitzen ari den ustea dago

Jendartean entzuna den sareen arteko gatazka ere azaleratu da. Askoren iritziz, eskola publikoetan etorkin tasa altua dago eta ikastolako umeen profila, aldiz, askoz ere homogeneoagoa da. Beste batzuek, ordea, hori ukatzen dute. Hainbatek publikoaren aldekotasuna erakutsi dute, are gehiago, hezkuntza osoa publikoa izatearen alde daude. Beste batzuk, berriz, publikoa bermatuta egonez gero, iniziatiba pribatuari ondo deritzote. Zentzu horretan, gizartean egon beharreko hezkuntza ereduen arteko talka ageri zaigu.

IDEIA GAKOAK

- Sareen arteko gatazkak hezkuntza zentro ezberdinen arteko harremanetan eragin nabarmena dauka: Hezkuntzako eragileen arteko elkar-ezagutza eta elkarlan falta, e.a.
- Matrikulazio kopuru txikiak dakarren lehia aipatu da oinarri bezala.
- Segregazioaren gaiarekin kaltetuenak, ikasleak, gizarte bera eta, zehazkiago, haur zein nerabeak direla azpimarratu da.

ARRISKUAK

- Sareen arteko ezezagutzaren ondorioz, eskolen arteko harreman txarrak sortzen dira. Eta beldur asko dago harreman txar horien atzean.
- Ghettoak sortzeko arriskua egon liteke eta horrek gazte etorkinen inklusioan eragina luke.
- Sare ezberdinetan dabiltzan ikasleen artean harremanik ez dago. Horrek ekar lezake gizarte zatiketa eta norbanakoaren harremanetan sare murritza izatea bizitza osorako.

> *Hezkuntza proiektu guztiek berdina diote. Oñatin eta Debagoienean eskolen arteko erlazioa txarra da eta hori oso tristea da. Zelo eta beldur asko daude*

ERRONKAK

- Debagoieneko hezkuntza sare bat sortzea.
- Hezkuntza proiektu komun bat sortu eta herrietan proiektu batzuetan batera lan egiteko zoru komuna ezartzea.
- Aretxabaletako esperientzia oinarritzat harturik, guraso foro komun bat sortzea.
- Kuotak ordaintzeko dirulaguntzak eskaintzea.

PROFILA

- HEZKUNTZA ARLOKOAK
- INKLUSIO ARLOKOAK
- GURASOAK

LOTURAK

AUKERA BERDINTASUNA (4.1.1.)

GOBERNANTZA KOLABORATIBOA (4.6.2. eta 4.6.3.)

4.4.3. Hezkuntza sistemak ezin die arazo guztiei bakarrik erantzun. Ezinbestean, komunitatearen laguntza behar du

Hezkuntza alorrak erronka eta arazo asko ditu, baina horien kudeaketa ezin duela eta ez dagokiola soilik berari nabarmendu da.

IDEIA GAKOAK

- Hezkuntzaren gain askotariko eta erronkak jartzen dira: berdintasuna, errespetua, bullyinga, harremanak, gaitasun altuak, arreta gabeziagatiko sindromea, haur etorkinen afera, e.a.
  - Haur etorkinak arazotzat hartzen dira sarritan: Eusko Jaurlaritzari dei egiten zaio haur etorkinak modu orekatuan eskolaratzeko.
  - Gaitasun guztiak kontuan hartzeko eskaera: hiperaktibitatea eta gaitasun handiko ikasleak kasu.
  - Eskola eremu formaletan genero bereizketa nabarmenak: harremanetan eta espazioaren erabileran, esaterako.

ARRISKUAK

- Haur etorkinen arrakasta ezinbestekotzat ikusi da integraziorako, porrotak frustraziora eta marginalitatera eraman ditzake.

ERRONKAK

- Haur etorkin gehien jasotzen dituzten eskolak laguntzeko proiektuak garatu beharra.
- Komunitatearen parte hartzea eta konpromisoa.
- Hezkuntzan legoke etorkizun oparo bat izateko giltza, berebiziko garrantzia ematen zaio.

PROFILA

- HEZKUNTZA ARLOKOAK
- INKLUSIO ARLOKOAK
- GURASOAK

LOTURAK

GOBERNANTZA KOLABORATIBOA (4.6.1., 4.6.2. eta 4.6.3.)

Hemen elkarrizketatuek aipatutako proiektu batzuk:

GAIA	PROIEKTUA	ERAGILEA/K
Hezkuntza	Mendeberri proiektua	MU + Arizmendi
	Konfiantzaren pedagogia	Arizmendi
Hezkuntza ez-formala	Herrietako elkarteak - Jardun, Txatxilipurdi…	

4.5. Kultura

Kultura edo arteaz gain, beste arlo hauek ere jaso ditugu; aisialdia, osasuna, kirola, lurraldetasuna, e.a.

4.5.1. Ez dago eskualde sentimendurik, nahiz eta estrategikotzat jotzen den eskualde eskala

Gehienak ez dira Debagoiendar sentitzen. Hala ere, estrategikotzat ikusten dute eskualde eskala planifikazio, antolamendu eta kudeaketarako.

IDEIA GAKOAK

- Ez dago eskualde bakarra Debagoienean. 3 gune bereizten dira: Leintz, Bergara-Antzuola-Elgeta eta Oñati.
- Momentu puntualetan batzeko joera: M8, Agrotaldea, Lagunkoia Debagoiena…
- Debagoienari errefentzialtasun bat aitortzen diote batzuk, batez ere kooperatiba eta enpresa mundukoek: berritzailea eta potentziala duen eskualdea.
- Debagoienak hiri modura funtzionatu beharko luke, herrien boterea lehia alde batera utzita.

Bada garaia hirigune gisa pentsatzen hasteko, Debagoiena Hiria, erakunde fuerte batekin eta etorkizuneko ikuspegiarekin. Ordaindutako egitura bat behar da Debagoienean pentsatzen.

ARRISKUAK

- Herrietako erdialde eta auzoen artean ezberdintasunak daude, arlo sozioekonomikoan, mugikortasunean, e.a. Bizirik mantentzeko zailtasunak, ahanztura sentsazioa daukate.

ERRONKAK

- Eskualde ikuspegia baliagarritzat jotzen da hainbat gairen kudeaketa eta planifikazioa egiteko: Poligono industrialen planifikazioa, udaletako materialak bateratzeko, eskualde hezkuntza sare bat sortzeko, e.a.
- Mankomunitatea edo batura hori egingo duen erakundea indartzea.
- Mugikortasunean erantzun bateratua, auzo eta herri txikiak kontutan izanik.

PROFILA

- ASKOTARIKOA

LOTURAK

IRAUNKORTASUNA (4.3.1.)

GOBERNANTZA KOLABORATIBOA (4.6.3.)

4.5.2. Gaur egungo aisialdi ereduak kezka sortzen du, eredua aldatu behar da

Aisialdi eredua bera aldatu egin da, batez ere, teknologia berrien eta indibidualismoaren eraginez. Era berean, aisialdia non sortu eta aurrera eramaten den izan da kezka gorena.

IDEIA GAKOAK

- Herrietako giroa apalduz doa. Auzoguneak motel, erdialdean sozializatzen baitira herritarrak.
- Aisialdia taberna giroan oinarritzen da eta horrek arazoak dakartza: gazteen droga kontsumoa, beste kultura batzuekin ez nahastea.
- Kirolak eta teknologia berriak aisialdiaren zati garrantzitsu bat bihurtu dira.

ARRISKUAK

- Aisialdi uneak eskualdetik kanpo topatzen ditugu, Gasteizen edo merkatalgune handietan.

ERRONKAK

- Eskualdean gelditzeko eskaintza sortzea asteburuetan kanpora joaten den jendearentzako.

PROFILA

- ASKOTARIKOA

LOTURAK

HEZKUNTZA (4.4.3.)

KULTURA (4.5.2.)



4.5.3. Osasun emozional eta mentala ez ditugu zaintzen, eta horrek hainbat ondorio dakartza. Indibidualismoak eragin nabarmena

Osasunaren arloan, bi gai aipatu dira nagusiki. Batetik, osasun emozional eta mentala. Eta bestetik, drogen kontsumoaren gorakada.

IDEIA GAKOAK

- Drogen kontsumoa eta presentzia handia dago eskualdean, alkohola (batez ere) gure sozializazioaren oinarrian dago eta onarpen handiz kontsumitzen da.
  - Gazteentzako aisialdi eredu murritzak (tabernak) eragin nabarmena izango luke.
  - Droga sintetikoek festa giroan onarpen handia daukate.
- Komunitatea indartzeko beharra dago.
- Arazo mental asko bakardadeak eragindakoak dira.
- Arazoaren erroa guztiz multidimentsionala da, ez da soilik aisialdi ereduaren ondorioa.

> *Es un problema de drogas, de educación sexual, de educación general, de salud pública, de orden público, económico... y no hay un único enfoque. Intentar darle solución desde un solo prisma es un error. Hacen falta muchas sillas para plantear algo.*

ARRISKUAK

- Gazte eta umeen asertibitatea, frustrazioa, autoestimua e.a. neurtzen dituen galdetegiak emaitza oso baxuak eman ditu.
- Indibidualismoaren eraginez, ez dugu elkar ezagutzen, horrek deskonfiantza dakar.

ERRONKAK

- Aisialdi eredu ezberdinen inguruan hausnartu eta aukera ezberdinak eskaini behar dira.
- Harremanetan zentratzeko beharra dago: hezkuntzak gizarte "berrirako" balio konpartitu batzuk eraikitzen lagundu behar du.

PROFILA

- ASKOTARIKOA
- OSASUN
- HEZKUNTZA ARLOKOAK

LOTURAK

- HEZKUNTZA (4.4.3.)
- KULTURA (4.5.2)

4.5.4. Kultur eskaintza handitu eta ireki behar da; sorkuntza bultzatuz

Kultura eta sorkuntzaren arloan, ikuspegi ezberdinak jaso ahal izan ditugu. Hainbatek eskualdea kulturalki pobre ikusten du, bai eskaintzan eta baita kontsumoan ere; sortzaileen ikuspuntua, ordea, bestelakoa da: sortu sortzen da, baina ez da ikusgarria.

IDEIA GAKOAK

- Kultur kontsumoa baxua dela aipatu da.
- Ikasketak kooperatiba industrialetara bideratu dira, eskualde nahiko homogeneoa da.
- Kultur sorkuntza bultzatu behar da, erraztasunak eman.
- Herrigintzako sorkuntza prozesuetan eten bat dagoela adierazi digute, errelebo falta dago.
- Herrietako kultur eskaintza oso komertziala da, amateurrek nahiko zail daukate zerbait egiteko. Gainera, kultur eskaintza, hein handi batean, teknikariaren esku.
- Herri txikiek kultura eskaintza eskasagoa. (Elgeta, Gatzaga…).

> *Errelebo falta bat dago, eta honek herrigintzan sortze prozesuak eteten ditu. Hau da, nik herriko jaiak berriz ere antolatu nitzake, baina zer egingo dut? Ba joan zen urteko berdina. Ez dugu ezer sortzen.*

ARRISKUAK

- Kultur kontsumoa baxua da, eta are gehiago kultura alternatiboa bada.

> *Kultura kontsumitzeko kultura sortu beharko litzateke.*

ERRONKAK

- Sortzaileek sortutakoa ikusgarri egitea.
  - Kultur eszenan sartzeko erraztasunak jartzea.
  - Prekarietatetik ateratzeko laguntza - oso zaila sortzaile gisa bizi izatea.
- Kultur espazio bat sortzeko beharra. Azpiegitura kulturalen falta: eskualdeko izaera ematen diote eta sormenerako zein ekitaldiak egiteko balioko luke.
- Kultur eskaintza handitu eta balioa eman kulturari: eskaintza parte hartzaile eta irekia.

PROFILA

- ASKOTARIKOA
- SORTZAILEAK

LOTURAK

HEZKUNTZA (4.4.1.)

Hemen elkarrizketatuek aipatutako proiektu batzuk:

GAIA	PROIEKTUA	ERAGILEA/K
Kultura sorkuntza	Emakume sortzaileen arteko sare-elkartea	Arrasate
	Eltzia kultur sorkuntza espazioa	
	Herrietako antzerki taldeak	
Osasuna	Hileta zibilen antolaketa	Dolulaguna
	Drogomenpekotasunaren aurkako proiektua	UDA - Aretxabaletako udala

4.6. Gobernantza kolaboratiboa

4.6.1. Elkartegintza eta gizarte zibil antolatua apaltze bidean, baina herrien artean aldeak daude

Oro har, parte hartzearen gaineko iritzi negatiboak agertu zaizkigu, parte hartze boluntarioaren edo militantearen beherakada bat egon delako. Badirudi lehen modu autonomoan egiten ziren lanak, gaur egun, administrazioari delegatu dizkiogula.

IDEIA GAKOAK

- Orokorrean herrietako parte hartzeak behera egin duen arren, aldeak daude:
  - Oñati, Aramaio, Bergara eta Aretxabaletan elkartegintza eta parte hartzea egoera onean leudeke. Arrasaten, parte hartzea jeitsi arren, parte hartzea badagoela diote.
  - Eskoriatza, Gatzaga eta Elgetan, aldiz, herrien parte hartzea apaltzen doan ustea du hainbatek.
  - Apaltzeko arrazoien artean hauek:
    Bizi eredua (indibidualismoa gailendu da). Enplegua da bizitzaren zentroa, eta estres maila handia daukagu, oro har.
    Gazteen ez parte hartzeko arrazoietako bat lokalen kultura izan daiteke.
  - Aldi berean, parte hartzeko zailtasunak dituzten kolektiboak: Migratuek, hizkuntza edo kultur ezberdintasunagatik; aniztasun funtzionala dutenek, konfiantza faltagatik.
- Parte hartze ereduan, hamarkada gutxitan, aldaketa nabarmenak eman dira.

> *Lehengo militantzia eredua eta oraingoa ez dira berdinak. Jendeari konpromisoa luzera kostatu egiten zaio, baina ekarpen puntualak egiteko modu diferenteak daudela ikusarazi behar da. Betiko militantzia eredua ere badago eta ekilibratu beharko litzake, norbere burua zaintze aldera*

ARRISKUAK

- Oinarrizko beharrak asetuta dauzkagu eta horrek inmobilismoa sortzen du.
- Administrazioari eskatzen dizkiogu lehen herrigintzatik aurrera eramaten ziren jarduerak.
- Gizartearen balioak aldatu diren arren, partaidetza sistema zaharrek indarrean diraute. Parte hartzea edo militantzia iragankorra da, nekez lor daiteke jendea urte luzez elkarte batean lan egitea.

ERRONKAK

- Parte hartzeko moldeak eta moduak eguneratzea.

PROFILA

- ASKOTARIKOA
- HERRIGINTZA ARLOKOAK

LOTURAK

ZEHARKAKOA
Puntu askorekin lotura



4.6.2. Lankidetza gutxi ematen da, eta lankidetza proiektuak aurrera eramateak lanak ematen ditu

Lankidetza, oro har, elkarteen arteko lankidetza, subjektu ezberdinena, lankidetza publiko-pribatua balio positibo gisa ikusten da. Lankidetza estrategikorik, ordea, ez dago.

IDEIA GAKOAK

- Pertsonen arteko lankidetza harremanak eraiki behar dira, etorri berriei modu antolatuan laguntzeko.
- Enpresen artean harremanak onak dira. Lankidetzarako zailtasunak daude, bakoitzak bereari eusten baitio.
- Lankidetza harremanak ematen diren proiektu edo sektoreak egon badaude: 1. sektoreko nekazari gazteak, feminismoan, enpresa pribatuak, komertzio elkarteen artean, Mondragon kooperatiba bera e.a.
- Herrien arteko lankidetza ahula da, elementu komunak aurkitu eta sinergiak bilatu beharra.

> *Lankidetzaz teoria baino ez dakigu. Entrenatu egin behar gara, praktikatu, eta gure soberaniaren zati bat besteekin partekatzen ikasi, erabakigune komunetarako espazioetan.*

ERRONKAK

- Lankidetza bultzatu arlo eta eskala guztietan, indibidualismotik kolektibotasunera salto egin.
- Enpresak, beraien artean, eragile sozial eta erakunde publikoekin batera proiektuak egitera ohitu beharko lirateke.

PROFILA

- ASKOTARIKOA
- ENPRESA ARLOKOAK

LOTURAK

ZEHARKAKOA
Puntu askorekin lotura



4.6.3. Administrazioa urruneko erakundetzat hartzen da

Oro har, urrun sentitzen dute herritarrek administrazio publikoa. Jasotako narratibetan administrazioaz hitz egiten da, baina, zehazki, ez dakigu ze mailatako administrazioaz ari diren.

IDEIA GAKOAK

- Administrazioari hainbat gaiekiko inplikazioa eskatzen zaio: genero ikuspegia txertatu, enpleguaren kalitatea hobetzeko neurriak, 1.sektoreari lagundu, enpresa txikiei lagundu, migratuen gaia agendan sartu, zaintza eta kontziliaziorako zerbitzu publikoak, e.a.
- Mankomunitatearen dinamika ez da nahikoa garatu: zein funtzio betetzen duen ez dago oso garbi, hainbatek zurruna eta urrunekoa den erakundetzat dute.

> *Lankidetzaz teoria baino ez dakigu. Entrenatu egin behar gara, praktikatu, eta gure soberaniaren zati bat besteekin partekatzen ikasi, erabakigune komunetarako espazioetan.*

ERRONKAK

- Orokorrean gizarteak ez daki nola funtzionatzen duen.
- Burokrazia aipatu da administrazio publikoaz jardutean: diru laguntzen eskaeretarako trabak.
- Eragile sozialekin lotura handiagoa eskatzen zaio.
- Mankomunitatearen figura indartu beharra azpimarratu da.

PROFILA	LOTURAK
• ASKOTARIKOA	ZEHARKAKOA Puntu askorekin lotura

www.debagoiena2030.eus